

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



Aitor
Esteban Bravo
atsegin dut 

ANDONI ORTUZAR Bermeon, 2023ko uztailaren 16an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Eguerdi on, Bermio eta Urdaibai!

Aspalditik nenbilen ni Bermiora etortzeko gogo itzelarekin. Herri honetan mitina egitea beti da jaia egitea bezalakoa, eta kriston energia jasotzen dugu zuengandik hona etortzen garen guztiok. Guk zuek animatu beharrean, alderantziz da. Zuen irrintziekin, zuen txalo zaparrada beroekin eta zuen indarrarekin, hemendik ateratzen gara indartsu eta sendo. Baina aurten, benetan, honaino etortzeko gogo handiekin nenbilen, Aritzi eta Alderdiko zinegotzi guztiei besarkada bero eta estua emateko. Politikaren gauzak horrelakoak dira. Aritz, herriak maite zaitu, nahi zaitu, eta Alderdiak be bai. Bermiok maite zaitu eta Alderdiak be bai. Biba zuek! Lau urte barru ikusiko dogu zelan bukatzen dan asuntua. Gu herritik ibili ahal gara lasai eta harro... eta lau urte barru ere bai. Pazientzia pixka bat. Lortuko dugu, ziur egon!

En política es muy importante saber estar donde nos toca en cada momento. Y nosotras y nosotros sabremos estar aquí, en Bermeo, en nuestro sitio. ¿Y sabéis cuál es nuestro sitio? Estar con la gente. Estar con el Pueblo. En la oposición, pero con el Pueblo. De eso va también el 23-J: de estar donde tenemos que estar y con quien tenemos que estar. Por lo tanto, tenemos que estar en Madrid, claro que sí, sin duda, como hemos estado siempre desde hace más de cien años, los últimos 45 intensamente. Porque en Madrid, por desgracia, aún se deciden muchas cosas que nos afectan en Euskadi.

¿Y allí, en Madrid, con quién tenemos que estar? Es una pregunta que tiene mucha miga, en esta ocasión. Porque se está metiendo a todo el mundo de manera obligatoria en uno u otro bloque. Con Sánchez o con Feijóo. Con el uno o con el otro. A las órdenes de uno o a las del otro. A rebufo del uno o al del otro. Metiéndote en la calle de una u otra embarcación y siguiendo su estela. Y quieren que sea obligatorio y sin rechistar. ¡Pues no! Nosotras y nosotros nos rebelamos. Nosotras y nosotros estamos en un bloque, claro que sí. Ahora que estamos en el Tour, y usando terminología ciclista, estamos en un bloque... y a bloque, claro que sí. Estamos en el bloque vasco y a bloque con Euskadi, como siempre ha estado el PNV. ¡A bloque con Euskadi! Nuestra lealtad y nuestra misión es Euskadi. Euskadi y un concepto al que Euskadi va indisolublemente unido: la libertad que da la democracia. Ese es nuestro bloque. Euskadi, democracia, libertad. Sobre esos tres pilares hablaremos de todo.

Euskaldunak gara. Abertzaleak gara. Eta demokratik. Gai horietan bietan inork ezin digu leziorik eman, batzuk 'estriborrera' eramán nahi gaituzten arren. Horietariko batzuk ausartu dira, gainera, PPrekin eta Vox-ekin nahasteko bideo bat egitera. Barkaezina. Lotsagarria. Politikan denak ez du balio. Baina argi dago enbarazu egiten diegula. Min ematen die Madrilen egiten dugun lanak.

Hortik dator beren umekeria hori, gu beti 'estriborrera' baztertuz, beti eskuinean kokatzeko asmo horrekin. Argi eta garbi erakutsi ahal dugu gu garela politika aurrerakoienak praktikan jarri dituenak; benetako politika progresistak! Eta ez bakarrik Euskadin, Estatu osoan baizik. Erreferente gara Europan. Baina hori ezin dute onartu, ezerezean geratzen zaielako ezkerren eta eskuinen artean darabilten joko hori, bloke txarra eta bloke ona ezberdinduz. Ba ez! Ez ezkerria ez eskuina; ez 'estribor' ez 'babor'; gu, iparra. Eta gure iparra, Euskadi!!!

Sí, lo estamos viendo todos y todas. Nos quieren retratar y encajonar en el bloque de las derechas, cuando podemos demostrar que el PNV es el partido que más políticas progresistas, de las de verdad, ha llevado a la práctica, no solo en Euskadi, sino en todo el Estado. Además, en esto de izquierda o derecha, babor o estribor, las y los que habéis andado en la mar sabéis que, si siempre remas o diriges la embarcación para un mismo lado, y solo por ese lado, da igual que sea estribor o babor, lo único que vas a conseguir es dar vueltas sobre el eje, pero no avanzar. Nosotros y nosotras sabemos dónde está estribor, dónde está babor, pero sobre todo sabemos dónde está el norte, la meta. El norte, la meta, es Euskadi. Nuestra boga, acompasando las paladas a babor y a estribor, va hacia el norte, metiendo bien el remo, sabiendo coger las olas buenas y haciendo frente a las que vienen de costado o por la proa.

El día 23 pueden pasar todas estas cosas. Que podamos coger una ola buena y que aprovechemos para avanzar como País gracias a nuestra posición en Madrid. O también, si las famosas encuestas españolas se cumplen, que tengamos mala mar, mar rizada o galerna, olas de cara y de costado. Si esto pasa, tenemos que tener una embarcación y una tripulación fuerte, experimentada, que sepa sortear la marejada. Aquí en Bermeo sabéis mucho de eso. Y también sabe de eso mucho nuestro patrón, el patrón del Grupo Vasco, Aitor Esteban. Aitor sabe bien dónde está estribor y dónde babor. Aitor, sobre todo, sabe bien dónde está el norte. Dónde está la meta. Lleva liderando muchos años una buena tripulación, una cuadrilla fuerte que ha demostrado saber navegar en todo tipo de aguas, incluso en las de ríos como el Manzanares.

Aitorrek badaki bandera irabazteko zer egin behar den. Bandera hori Ikurrina da, jakina. Gauza bat: joan den ostiralean, guk bakarrik ospatu genuen Ikurrinaren urteurrena. Batzuen abertzaletasuna nondik nora doan argi erakusten du horrek. Eta horrexegatik bandera irabazi behar dugu. Uztailaren 23an estropada nagusia izango dugu. Horretarako, Euskadiko traineruak arraun onak behar ditu, traineru sendoa behar dugu. Boto asko behar ditugu gure ordezkarietako babes ona eta sendoa emateko.

Eso he venido a pedirlos. Los bermeanos y las bermeanas sois gente generosa, siempre habéis estado con el Partido, con Euskadi. Os vengo a pedir un esfuerzo, una 'txanpa' final. Necesitamos votos, necesitamos todos los votos para ganar la bandera, para coger la ola buena, para llevar los intereses de Euskadi a buen puerto en Madrid. Hay que bogar, hay que avanzar, hay que llevar a Euskadi en volandas hacia la meta.

Gora Euskadi askatuta!!!